

X

Biharko sistema eragilea gaur

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Izenak ez du enigmatikoa izan nahi. Apple-k garatutako sistema eragilearen hamargarren bertsioa besterik ez du adierazten. Baina hamargarren honek benetako berrikuntzak eskaintzen ditu, batez ere itxura eta lan egiteko erari dagokionez. Laster gure artean ikusiko dugun Mac OS X berri hau ez da sistema eragile arrunta, ingurune grafikoa bere azken mugaraino eraman baitute.



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

STEVE JOBS-EK MAC OS X AURKEZTU ZUENEAN honakoa esan zuen: "Mac OS X-ek erabiltzaileak bere erraztasunagatik eta profesionalak bere ahalmenagatik liluratuko ditu". Eta azken finean hori da sistema eragile honen oinarria: erraztasuna eta ahalmena.

Itxura berritzailea

Mac OS X Macintosh-eko sistema eragilearen implementazio guztiz berria da, interfazea ere aldatu egin dute eta "Aqua" izeneko interfaze berria sortu dute. Apple-k sortu duen interfazeko teknologia honek, 80ko hamarkadaren hasieran Apple-en lehen sistema eragilean suposatzen bezala, aurrerapauso nabarmena suposatzen du interfaze kontuetan. "Dock" izeneko aplikazioa

gehitu diote; hau dokumentu, bideo, aplikazio, web gune, etab. antolatzeko sistema berria da, guztiz bisuala. Gainera, Finder-aren itxura ere berritu dute, eta, ondorioz, fitxategiak gorde, aurkitu eta antolatzeko era ere guztiz aldatu da. Honez gain, botoi, scroll eta leiho berriak eskaintzen ditu Aquak, itxura guztiz berritzailearekin.



ARTXIBOKOA

Hau guztia posible izan da, Mac OS X-ek eskaintzen duen sistema grafiko berriari esker. Honek 2D, 3D eta multimediaentzat oinarri berriak hartu ditu: 2D grafikoak Quartz sistema erabiliz lan-tzen dituzte (PDF estandarrean oinarritutakoa), 3D grafikoak OpenGL teknologian oinarrituta eta multimedia, aldiz, QuickTime estandarrean.

[*“Mac OS X
Macintosh-eko
sistema
eragilearen
inplementazio
guztiz berria da”*]

Bihotza Unix-en antzera

Sistema eragilearen bihotzak Darwin du izena, eta hau da Apple-k garatu duen sistema eragilearen kernela. Darwin Linux-en antzekoa da; beraz, *open source* moduko sistema eragilearen aldeko apustua egin du Apple-k.



Gainera, orain arte Macintosh-erako garatutako sistema eragileetatik egonkorrena hau dela esan daiteke, memoria babesteko sistema bereziak baititu: aplikazio bakoitzari bere memoria zatia esleiten dio, aplikazio batek huts egiten badu gainerakoen gain eraginik izan ez dezan. Gainera, sare eta Internet-erako bereziki prestatua dago.

Baina zer gertatzen da aplikazioekin? Lehendik dauden aplikazioek lan egingo al dute sistema eragile berrian? Hori ere aurrez ikusi omen dute, eta horretarako hiru sistema bereizten ditu Apple-k: "Classic", "Carbon" eta "Cocoa". "Clas-

Bi Office berri: bata Mac-erako eta bestea PCrako

PCrako Office 97ren Mac bertsioa, Mac Office 98 kaleratu zuenetik, Microsoft-ek ez zuen bere softwarearen Mac-eko bertsio berririk merkaturatu. Dena den, badirudi Mac-eko erabiltzaileez ez dardela guztiz ahaztuta eta aurtengo urrian espero zen Mac Office 2001 kaleratzea.

Mac Office 2001 honek Word, Excel, PowerPoint eta Entourage aplikazioak izango ditu. Guztiak PCrako iaztik dugun Office 2000ren bertsio berdina dira, bi izan ezik: PowerPoint-en QuickTime formaturako bihurtzea gehitu dute, eta, gainera, Entourage gehitu diote familiari. Aplikazio hau Windows-eko Outlook 2000ren antzekoa da, agenda eta posta-zerbitzuak eskaintzen dituen aplikazioa, alegia. Dena den, Macintosh-erako Office berria ez da merkaturatuko den bakarra. Windows-eko Office-ren bertsio berria espero da datorren urte hasierarako. Bertsio honen izena ez dago guztiz erabakita oraindik, baina seguraski Office 10 izenez merkaturatuko da.



Internet-en nabigatzeko betaurreko arruntak

Era guztietako betaurrekoak aurkeztu dizkigute azkenaldian, baina hauek dira bitxienak eta, agian, erabilgarrienak. Egutero erabiltzen ditugun antzeko betaurrekoak dira, gure ikusmena zuzentzen laguntzen digutenak. Berezitasuna zera da: pantaila oso mehea txertatu diotela betaurrekoen beirari, eta hau kable bidez ordenagailu batera konektatzean irudiak eta testua eskaintzen dituela. Pantaila honek 80 cm-ko distantziara kokatuta dagoen pantaila arrunt baten ikusmena eskainiko omen du, baina zuri-beltzez hasiera batean behintzat. Datorren urtean izango ditugu gure artean betaurreko bitxi hauek.

sic" izeneko sistemak 8. bertsiotik aurrerakoekin lan egiten duten aplikazioak erabiltzen ditu. "Carbon" sistemak erabiltzen dituen aplikazioek aldaketa txikiak jasan dituztenak dira, sistema berri-erako egokitu dira maila xumean. Eta "Cocoa" sistemak sistema eragile berri-erako guztiz egokitutako aplikazioak erabiltzen ditu, honen eraginkortasunaz guztiz baliatuz.

Aplikazioak hiru maila horietan bereizteak sistema eragile berri-erako migrazioa pixkanaka egitea ahalbidetzen du. Kon-

tuan izan behar da sistema eragile hau G3tik aurrerako makinetan bakarrik ibili ahal izango dela eta 64 MB-eko memoria izan beharko dutela gutxienez. Ez da erabiltzaile guztiei zabalduetako sistema eragilea beraz, baina epe laburrera bera izango da nagusi Macintosh-en munduan inolako zalantzarik gabe. ☐